

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako hobien mapa beste 76 jarduera batzuekin berritu dute

Foru-gobernuak bultzatuta, eguneratze horrek tresnak emandako informazioa hobetu eta handitu egin du

Astelehena, 2017.eko abuztuak 14

Foru gobernuak [Nafarroako hobien mapa](#) eguneratu du TRACASA enpresa publikoari egindako eskaeraren bidez. Horrela, Gobernuak 2015. eta 2017. urteen artean egindako beste 76 jarduera gehitu ditu. Ekintza horiei esker nabarmen hobetu da Mapak emandako informazioa. Horrela, orain, beste 22 hobiren datuak daude, beste 38ri buruzko informazioa eguneratu da, 21 hildakoren datuak eman dira eta beste 49 non lurperatu diren adierazi da.



Hobien mapan 2015. urtera arte egindako eguneratzeak funtsean memorialisten elkarteek, ikertzaileek eta informatzaile partikularrek emandako informazioetan oinarritu ziren. Laguntza horri esker hobien mapa edukiz bete zen eta gaur egun ezinbesteko iturria izaten jarraitzen du.

Horrez gain, legealdi honetan, Bakea, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiak koordinazio bat ezarri du TRACASArekin, eta horri esker, memoriako politika publikoek dokumentazio, prospekzio eta hobitik ateratzen arloan bultzatutako jarduera guztiak tresna honetan ere jasoko dira. Horrela, hobitik ateratzen programan berreskuratutako 54 gorpuei, DNAREN bankua sortzearen ondorioz lortutako hamalau identifikazioei eta egindako prospekzioei buruzko informazio berria jaso da.

Mapa

Hobien mapa administrazio publikoei egiten zaien eskaera bat da eta Memoria Historikoari buruzko 52/2007 Legeak eta 1936ko estatu-kolpe militarrek eragin zuen errepresioaren ondorioz hildako nafartarrak aitortzeko eta haien morala ordaintzeko 33/2013 Foru Legeak jasotzen dute. Ezinbesteko tresna da frankismoaren biktimei memoria emateko eta egiaren eskubidea betetzeko. Helburua da kolpe horren ondorioz biktimei, lurperatu ziren hobiei eta oroipen lekuei buruzko informazio geolokalizatua ematea.

